



DERIOKO UDALA

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA DERIOKO UDALARENTZAKO EKITALDIEN AZPIEGITURAK ALOKATZEKO ETA JARTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO

1. klausula- Kontratazio espedientea justifikatzea.

Erkideari zuzendutako ekitaldien programazioan azpiegiturak kontratatzeke beharra dago, Agiri honetan adierazitako aldi zehar ekitaldiek azpiegiturak izan ditzaten.

2. klausula - Kontratuaren xedea.

Agiri honen xedea da kontratuaren baldintza teknikoak finkatzea, agirian adierazitako egunetan edo Udalak behar dituen egunetan azpiegiturak erabilgarri izan ditzan ekitaldiak egiteko finkatutako tokietan. Azpiegiturak alokairuan jarriko dira, bai muntatzea bai desmuntatzea, eta karpak, azpiegiturak eta estaldurak lekuz aldatzea, beharrezkoa denean kultur eta aisiako ekitaldiak egiteko edo Derioko Udalak antolatutako edozein ekitaldi egiteko.

Muntatze eragiketa guztiak osatuko dira dagokion muntatze-ziurtagiria aurkeztuz, eskumena duen teknikariak egina.

Kontratu honetan adierazitako azpiegiturak, eta tokiak eta eman behar diren egunak honakoak dira

INAUTERIAK


A) Eguna, toki eta iraupena: Gauzatu beharreko zerbitzua izango da adierazten den materiala hornitzea eta jartzea, asteburuan (5 egun), ohikotasunean Sollube kalearen 4. zenbakiaren parean. Udalak erabakiko du elementuak non ipini eta kokagunea zein lur motatan.

B) Materialak:

1.- KARPA (1) BAT, 10 x 20 x 3,5 metrokoa, arkupedun motakoa, guztiz gardena, bi isurkiko aldapa, aluminiozko egitura, alboko itxierak. Estaldura eta alboko itxierak suaren aurkako lonazkoak izango dira. Biartikulatu motakoa izango da egitura, eta bere beheko puntuaren gutxienezko altuera 3,5 metrokoa izango da. Ainguraketa egongo da zolatan torlojuz lotuta.

2.- AGERTOKI (1) BAT -6 x 4 metroko PLATAFORMA, estaldurarik gabe, finkatzeko hanka erregulagarri altueran, erabiliko den azalera gutiz horizontala laua eta inolako ertzik osatutako piezen artean, 1,00 - 1,25 metroko altueran. Agertoki honek baranda izango du babes perimetralean eta bertara sartzeko eskailera.

SAN ISIDRO



DERIOKO UDALA

A) Eguna, tokia eta iraupena: Gauzatuko den zerbitzua izango da adierazten den materiala hornitzea eta jartzea, 7 egunetan erabiltzeko Gernikako Arbola 2-4-6 zenbakietan.

B) Materialak:

1.- KARPA (1) BAT, 15 x 45 x 4,5 metrokoa, arkupedun motakoa, guztiz gardena, bi isurkiko aldapa, aluminiozko egitura, alboko itxierak. Estaldura eta alboko itxierak suaren aurkako lonazkoak izango dira. Biartikulatu motakoa izango da egitura, eta bere beheko puntuaren gutxienezko altuera 4,5 metrokoa izango da.

2.- TXOSNA (1) BAT, 8 x 4,5 metrokoa, altzairu galvanizatuzko egitura, saltzeko mostradore batekin fatxadarik handiengan behintzat, gutxienez 0,85 x 1,95 metroko sarrera-ate batekin, suaren aurkako toldorekin, koadro elektriko homologaturekin eta sukaltarriekin.

3.- TXOSNA (1) BAT, 6 x 4 metrokoa, altzairu galvanizatuzko egitura, saltzeko mostradore batekin fatxadarik handiengan behintzat, gutxienez 0,85 x 1,95 metroko sarrera-ate batekin, suaren aurkako toldorekin, koadro elektriko homologaturekin eta sukaltarriekin.

4.- AGERTOKI (1) BAT– 10 x 8 metroko PLATAFORMA, estaldurarik gabe, finkatzeko hanka erregulagarri altueran, erabiliko den azalera gutiz horizontala eta laua eta inolako ertzik osatutako piezen artean, 1,00 - 1,25 metroko altueran. Agertoki honek baranda izango du babes perimetralean eta bertara sartzeko eskailera.

5.- KONTAINER (1) BAT, itsas motakoa 6 metro luzeran, biltegi bezala erabiltzeko.

6.- JAIMAK. 5 x 5 metroko unitate 2, aluminiozko egitura, estaldurekin eta alboko itxidurekin aluminio, Estaldura eta alboko itxierak suaren aurkako lonazkoak izango dira.


SANTIAGO, SAN IGNACIO, SAN ESTEBAN (berdin guztiak)

A) Eguna, tokia eta iraupena: Gauzatu beharreko zerbitzua izango da adierazten den materiala hornitzea eta jartzea, 11 EGUNETAN erabiltzeko Zeroetxe plazan, atzealdean. Udalak erabakiko du non jarri eta kokagunea zein lur motatan.

B) Materialak:

1.- TXOSNA (1) BAT, modulu desmuntatze ezina, gutxi gorabehera 6 x 2,35 metrokoa, saltzeko mostradore batekin fatxadarik handiengan behintzat, gutxienez 0,85 x 1,95 metroko sarrera-ate batekin.

SAN IGNACIO



DERIOKO UDALA

A) Eguna, tokia eta iraupena: Gauzatu beharreko zerbitzua izango da adierazten den materiala hornitzea eta jartzea, 5 - 6 EGUN erabiltzeko Lainomendi kalea 2an.

B) Materialak:

1.- KARPA (1) BAT, 10 x 20 x 3,5 metrokoa, arkupedun motakoa, guztiz gardena, bi isurkiko aldapa, aluminiozko egitura, alboko itxierak. Estaldura eta alboko itxierak suaren aurkako lonazkoak izango dira. Biartikulatu motakoa izango da egitura, eta bere beheko puntuaren gutxienezko altuera 4,5 metrokoa izango da.

2.- AGERTOKI (1) BAT – 10 x 6 metroko PLATAFORMA, estaldurarik gabe, finkatzeko hanka erregulagarri altueran, erabiliko den azalera gutiz horizontala eta laua eta inolako ertzik osatutako piezen artean, 1,00 - 1,25 metroko altueran. Agertoki honek baranda izango du babes perimetralean eta bertara sartzeko eskailera

SAN ESTEBAN

A) Eguna, tokia eta iraupena: Gauzatu beharreko zerbitzua izango da adierazten den materiala hornitzea eta jartzea, 4 EGUNEN ARTEAN erabiltzeko, Ganbe 1ean. Udalak erabakiko du non jarri eta kokagunea zein lur motatan.

B) Materialak:

1.- TXOSNA (1) BAT, modulu desmuntatu ezina, gutxi gorabehera 6 x 2,35 metrokoa, saltzeko mostradore batekin fatxadarik handiengan behintzat, gutxienez 0,85 x 1,95 metroko ate batekin.

SAN MIGUEL


A) Gauzatu beharreko zerbitzua izango da adierazten den materiala hornitzea eta jartzea, 13 egunetan erabiltzeko Mikel deuna plazan.

B) Materialak:

1.- KARPA (1) BAT, 15 x 30 x 4,5 metrokoa, arkupedun motakoa, guztiz gardena, bi isurkiko aldapa, aluminiozko egitura, alboko itxierak. Estaldura eta alboko itxierak suaren aurkako lonazkoak izango dira. Biartikulatu motakoa izango da egitura, eta bere beheko puntuaren gutxienezko altuera 4,5 metrokoa izango da.

2.- TXOSNA (1) BAT, 8 x 4,5 metrokoa, altzairu galvanizatuzko egitura, saltzeko mostradore batekin fatxadarik handiengan behintzat, gutxienez 0,85 x 1,95 metroko sarrera-ate batekin, suaren aurkako toldorekin, koadro elektriko homologaturekin eta sukaltarriekin.

3.- TXOSNA (1) BAT, modulu desmuntatze ezina, gutxi gorabehera 6 x 2,35 metrokoa, saltzeko mostradore batekin fatxadarik handiengan behintzat, gutxienez 0,85 x 1,95 metroko sarrera-ate batekin.



DERIOKO UDALA

4.- AGERTOKI (1) BAT – 10 x 8 metroko PLATAFORMA, estaldurarik gabe, finkatzeko hanka erregulagarri altueran, erabiliko den azalera gutiz horizontala eta laua eta inolako ertzik osatutako piezen artean, 1,00 - 1,25 metroko altueran. Agertoki honek baranda izango du babes perimetralean eta bertara sartzeko eskailera.

5.- KONTAINER (2) BI, itsas motakoa 6 metro luzeran, biltegi bezala erabiltzeko.

6.- MODULU (1) BAT, ALDAGELA MOTAKOA, MP-6 motakoa altzairurekin.

ERREKALDE PARKEA

A) Eguna, tokia eta iraupena: Gauzatu beharreko zerbitzua izango da adierazten den materiala hornitzea eta jartzea, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean erabiltzeko Errekalde parkean.

B) Materialak:

1.- KOMUNAK. 2 unitate, banakako kabinekin, barne astean 2 garbiketa gutxienez, aipatutako lau hilabetetan.

BESTEAK

Enpresa eskatzaileek prezio bat aurkeztu beharko dute ekitaldi bakoitzerako eskatutako ekipamenduz bakoitzerako,

Enpresa eskatzaileek prezio bat aurkeztuko dute ekitaldi bakoitzerako eskatutako ekipamendu mota bakoitzeko, horri dagozkion kostu zuzenak eta zeharkakoak edukiz.

MATERIALEN ETA ZERBITZUEN EZAUGARRIAK.


Karpen egitura guztiak aluminio anodizatuzkoak izango dira, torlojuz lotuta, eta aurreko atal guztietan deskribatuta dagoen bezala.

Lona guztiek, bai estalkian bai alboetan, aurretenkatuta egon behar dira, poliesterrekin fabrikatuta eta PVC estalita, zuri kolorekoa, suaren aurkako M2 erresistentziarekin.

Karparen egitura aluminio anodizatuzkoa izango da malgutasun muga altuarekin, eta diseinatuta 100 km orduko haizeen babeserako eta 10 kg/m²-ko elur karga jasateko horizontal proiektzioan, 1,7 segurtasun koefizientearekin.

Kontratastak nahitaez garraiatuko ditu karpak eta material guztiak eta egiturak muntatzeko eta desmuntatzeko beharrezkoa den makinaria eta osagarriko elementuak eta lotzeko elementuak, erabakiko den tokiraino.

Kontratastaren kontura izango dira behar diren langileak muntatze eta desmuntatze lanak betetzeko, mantenamendurako eta instalazioek eraginiko zonaldeak berreskuratzeko (lokailuak, euskarriak, eta abar)



DERIOKO UDALAK

Kontratastak nahitaez egingo ditu behar diren berrikusteak, konponketak eta osagarrien ordezkatzak, prest egoteko edozeinetan haiek kendu arte erabilera egoki izan dezaten.

Materialak, karpak eta azpiegiturak jarriko dira plegu honen klausulek xedatzen duten arabera eta Udalak (kontratuaren arduradunaren bidez edo horretarako izendatutako pertsonaren bidez) emango dituen jarraibideen arabera.

Instalazioa egin ondoren ziurtagiri bat aurkeztuko da, eskumena duen teknikari batek egina, ziurtatuz instalazioa egokia dela eta indarreko araudiak eskatzen dituen segurtasun neurri guztiak betetzen direla.

3. klausula - Kontratuaren xedeak izango dituen ezaugarriak

Norentzat.

2. klausulan aipatzen diren azpiegiturak daude aurrean adierazitako ekitaldien antolaketaren menpean eta Derioko Udalak antola ditzakeen ekitaldien menpean, baldin eta Baldintza Agirietan ezarritako kontratu-mugen barruan badaude.

Kokapena.

Kontratu honen xedeko ekitaldiak emango dira Udalak esandako tokietan, dependenzietan eta zentroetan, dauden betekizunen eta erabilgarritasunaren arabera, kalterik egin gabe behin behineko ala behin betiko tokien aldaketari sortutako arrazoiengatik.

Azpiegiturak erabiltzeko datak eta egunak honakoak dira:

Kontratuaren iraupena.

Zerbitzua emateko epea urte (1) bat izango da, kontratua formalizatu eta biharamunetik kontatzen hasita baldin eta egun hori beranduago egiten bada, urte (1) bateko luzapen aukerarekin. Estaldura eta azpiegiturak behar dituzten beste ekitaldi batzuk antolatzeari kalterik egin gabe, horiek instalatu beharko dira aurrekoen kantitate berean metro bakoitzeko eta Udalak eskatuta. Kostua lizitatzailleak eskainitakoa izango da.


4. klausula – Kontratuaren aurrekontua, gaurko egoera eta kredituaren.

Karatulako 8. eta 9. Ataletan ezarritakoaren arabera.

5. klausula – Ordaintzeko modua eta aurreikusitako aurrekontua.

Kontratuaren prezioa ordainduko da zerbitzuen faktua xeheak aurkezten eta Baldintza Berezien Klausulen Agiriaren 28. eta 29. klausuletan ezarritako moduan eta Karatulako 30. atalean, zerbitzua egin ondoren eta kontratuaren arduradunak adostasuna eman ondoren.

Ordainketa egingo da Baldintza Berezien Klausulen Agiriaren 28. eta 29. klausuletan ezarritakoaren arabera eta Karatularen 30. atalean ezarritakoaren arabera,



DERIOKO UDALA

Baldintza Berezien Klausulen Agiriaren 6. klausula eta Karatularen 10. atalean adierazitako aurrekontu-partiden kargura, eta aurreko hilean emandako zerbitzuei dagokien faktura aurkeztu ondoren eta Udalak zerbitzua ondo gauzatu dela egiaztatu ondoren.

6. klausula – Betekizun teknikoak zerbitzua emateko.

Esleipendun enpresak, Derioko Udalak aurkeztutako programazioaren arabera, jarduera edo ekitaldia hasi baino hilabete 1 lehenago, Derio Udalaren ekitaldi ezberdinetarako beharrezko azpiegiturak erreserbatuko ditu.

Esleipendun enpresak ezin du aldatu eskainitako materiala, zerbitzua..., aurretik Udalaren adostasuna izan gabe. Aurkeztu duen eskaintza bete behar du ekitaldiak egiterakoan arazorik ez gertatzeko.

Kontratua burutzeko erabiliko diren langileei dagokienez, esleipen enpresak nahitaez bete behar du indarreko xedapenek agindutakoa, bereziki, lan- eta fiskal-legerian. Langile horien ardura izango du esleipendunak bakar-bakarrik, horrek enplegatzailea den aldetik berez eskubide eta betekizun guztiak ditu, eta Udalak ez du zer ikusirik lan harreman horietan.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura buruko da. Esleipendun erakundearen ardura da hornidura-eragiketen ondorioz Udalari zein hirugarrenei egin ahal dizkien kalteak eta galerak bere gain hartzea, salbu kalteak Administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa bada.

Udalak ez du inola ere bere gain hartuko kontratistak jarritako karpetan, estalduretan edo instalazioetan izan daitezkeen kalteak, ezta horiek egin daitezkeen kalteak, nahiz eta halabeharraren ondorioz gertatu.

7. klausula – Esleitzeko prozedura.

Kontratu honen esleipena izango da prozedura irekian, ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintzari esleituz, Baldintza Berezien Klausulen Agiriaren **karatularen 20. eta 21. ataletan** dauden balorazio irizpideetan oinarrituta. Esleitzeko irizpideak kontratuaren xedearekin zuzen lotuta egon behar dira, eta bere haztapena ere Karatulan egongo dira.

SPKLTBeko 109, 138 eta 157. artikuluetan ezarritakoaren arabera, prozedura irekian hautaketa eta balorazio irizpide batzuen jarpena justifikatuta daude gai diren enpresari guztiak proposamenak aurkezteko modukoak izan daitezen, eta ekonomiaren aldetik, onuragarriena den eskaintzari esleipena egiteko modukoa izateko, onartutako balorazio irizpideetan oinarrituta.

Prozedura irekian interesa duen enpresari orok proposamena aurkez dezake. Era berean, lizitatzailerekin ezingo dira kontratuaren baldintzak negoziatu.

Derion, 2017ko otsailaren 8an